

## **BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK:**

Gure ideia ikastolei planteatzen zaienez, lehenengo Gobernuarekin hitz egin beharko genuke, Gobernuak ideia onartzen badu, ikastoletako zuzendariekin hitz egitea izango litzateke hurrengo pausoa. Ikastolek gu onartu ondoren, gobernuaren eskutik beste probintzietako ikastolei zuzendutako hitzaldiak antolatzea izango litzateke gure proiektuak bezeroak lortzeko ideiarik hoberena. Gure ideia bultzatzen duten kanpainak egiteak ere bultzatuko luke gure lanaren "fama", kultur etxe edota udaletxeetan hitzaldiak eman eta gure lanaren nondik norakoak azalduko ditugu, bai gurasoei eta baita ikastoletako zuzendariari ere.